

EUROPA



Gaur egunean, gizon «mundialik» bada, ori Juan Pablo II dogu. Berau bezelako leader aundirik ez daukagu. Ez dago beste bat orren biotz zabaltasunik ta ikuspegi orokorrik daukanik!

Bere amar urte onetako aitasantutzan ezin dautsagu egi ori ukatu. Aldi berean, azpimarratzekoa da Juan Pablo II.naren europartasuna. Biotz barnean daroa gure Europa zaarra Ainbat toki ta momentu garrantzitsuetan agertu izan dau zenbateraino maite dauan Europa. Onen erdigunean jaioa danez, baleiteke Aita Santuaren biotz taupadak gureak baino sentikorragoak izatea.

Europaren bateraketa

Urrian, Estrasburgon izen genduan Aita Santua. Ta Europako parlamentuan bota eban itzaldia ez da bertanbeera iztekoa. Zoritxarrez, gure komunikabideetan ez dau itzaldi orrek beste munduko oiartzunik izan. Ulsterko Paysleren purrustadak leku geiago izan eben gure komunikabideetan Aita Santuaren itzaldiak baino. Gero, gure kazetariak profesionalak dirala esan...

Itzaldi orretan, beste ainbat itzaldietan antzera, Juan Pablo II Europaren bateraketa ta integrazioaren alde daukagu. Europar sutsua dogu Aita Santua. Europa aberri aundi bat bezela ikusten dau. Pulmoi biko aberria. Mendebaldeak ta ekialdeak osoturiko aberria. Ez dau ikusten aberri aundi au bere zilborrari begira, mundu guztiko lurraldeetara begira baino. Olan jarraitu bear dau Europak bere betebearra munduan zear.

Europaren integrazioaren alde daukagu Juan Pablo II. Baina ez edozelango bateraketaren ta integrazioaren alde. Demokraziaren bidez lortutako integrazioa onartzen dau bakarrik. Pertsonentzat ta erritarrentzat askatasun tokia izan bear dau Europak. Mandatu ori ez dau inondik inora aaztu bear Europak. Beste gauza guztien gainetik orixe da, izan be, Europaren mezurik ederrrena. Orretarako giza eskubideak ta demokraziaren balioak eten barik zaintzeko eskatzen dautso Juan Pablok Europari. Bestela pertsonen ta errien duintasuna beti arriskuan egongo da.

Demokraziaren bidez lortutako European, erri batzuk edo kultura batzuk ez dabe beste erri edo kulturen menpean izateko arriskurik. Integrazio orretan Europako errien ta kulturen aberastasuna sendotuta geratuko da. Bardintasuna desbardintasunean biziko da. Erri batzuk edo kultura batzuk besteak irunsten ibili barik, alkar errespetaturik danak aberastuko dira. Olako integrazioa demokraziaren bidez lortu leike, ta ez armaz eta tiroka. Gerren arrazoiak nazkatuta ta iguinduta daukagu betirako Europa. Istori, baltz ori ez dau nai inondik be geiago sentidu bere erraictan.

Jaungoikua askatasunaren iturburua

Europak nai badau «askatasun toki» izaten jarraitu, ezin dau bere arimea ta bere arnasa ta bere identitatea galdu. Ez dau nai-ko ekonomi mailan lortutako integrazioa. Irri-mirriz esanda, merkatarien Europa izango litzake ori, geiago eskatzen dautso Aita Santuak Europari. Bere arimeaz ta bere identitateaz burujabetzea eskatzen dautso, bestela egin dau berea. Zer esanik ez, European arimea kristautasunean murgilduta ageri da. Europako erri ta kultura guztietan, Ebanjelioaren baliorik ederrenak aurkitzen dira.

Europak bere kristau balioak arbuiatzen baditu, ez dau bakarrik ukatzen bere istoria baita bere etorkizuna be. «Zesarri zesarrena ta Jaungoikuari Jaungoikuarena» esatean, Europak bada-ki, bere erakunde guztiak, bai politikuak, bai sozialak ta bai bes-telakoak, ez dirala «absolutoak». Jaungoikua guztion kretzaille danez, guztiok gara bere seme-alaba ta guztiok alkarrekin neba-arreba. Ta olan ez dira erri batzuk edo kultura batzuk edo talde batzuk beste erri batzuk edo kultura batzuk edo talde batzuk menperatzeko arriskuan jausiko. Politikazko mesianismoen arris-kua orixe izaten da ta olako mesianismoak txarrenetako anker-keri ta basakeri biurtzen dira. Ta ez daukagu urrin joaterik, ola-ko basakeri bildurgarriak ikusteko...

Jaungoikua da egiazko askatasunaren iturburua. Ortik datorkio Europari bere askatasun bokazioa ta izakera. Ta bere arerio okerrenak erlijio integrismoa alde batetik ta agnostizismoa, dira bestetik. Arrisku bi oneengandik etorri leikio Europari bere azken amasa. Orixe izango litzake Europaren eriotza. Ta ori gertatu ez daiten, Ebanjelioko balioak errien ta gizon-emakumeen biotzetan inkulturatzera deitzen dausku Aita Santuak. Orretarako, bere itzaldiaren amaieran, europar erritarroi kreazioaz ta beste erriekaz ta bakoitza bere barruaz adiskidetzeko ta bakeak egiteko dei sentikorra. Ona emen Aita Santuaren asmo batzuk Europaren batereketa ta integrazioa egiteko. Olan bai, Europako zerua izar dizdiratsuz ugarituko dala, bere mezua non-naï argituz. Ta euren artean, izartxo txiki argitsua, Euskadi deritxogun izartxo maitagarria!

A. Olea